

Ikasle agurgarria,

Honako honen bidez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2015eko azaroaren 17ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako eta 2015-2016 ikasturtean ikasleen nazioarte mailako mugikortasuneko programak dituzten unibertsitateentzako diru-laguntzen deialdia argitaratu dela jakinarazten dizut.

UPV/EHU-k deialdian aipatutako betekizunak betetzen dituzten ikasleak sartuta duen eskabide bat aurkeztu behar izango du.

Horretarako, **2016ko urtarrilaren 15ean baino lehenago** UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetarako Bulegora posta-elektronikoz honako dokumentu hauek bidali beharko dituzu: behar bezala betetako eta sinatutako berariazko baimena, zure GAUR profiletik eta webetik jaitsi ahal izango duzuna; eta 2015eko urtarrilaren 1ean baino lehenagotik Euskadiko Autonomia-Erkidegoko udalen batean, zure auzo administratiboa egiaztatzen duen eskaera-datan eguneratutako errolda-ziurtagiria.

Aipaturiko dokumentazioa Nazioarteko Harremanetarako bulegora bidali behar izango da webean aurkitzen den formularioaren bidez:

**EUSKO JAURLARITZAREN BEKA ESKATZEKO DOKUMENTAZIORAKO AURKEZPENERAKO FORMULARIOA.**

Laguntzak emateko ebazpena jakinarazi ondoren, hauen ordainketa mugikortasunerako eskarian emandako kontu-zenbakian egingo da, behin Nazioarteko Harremanetako Bulegoan mugikortasuneko programako nahitaezko dokumentazioa jaso ondoren, egonaldiaren amaierako ziurtagiria barne.